

Geografia

- **BATXILERGOA**
- **LANDIBE HEZIKETA**
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Probaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da:

1. Ariketa praktikoa: 4 puntu.

Mapak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea hartuko dira kontuan.

2. Gai bat garatzea: 4 puntu.

Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.

3. Kontzeptu geografiko batzuk definitzea: 2 puntu.

Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke. Definizio bakoitza 0tik 0,5era kalifikatuko da.

Kontzeptuak argi eta zehatz definitzea hartuko da kontuan.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

La valoración total de la prueba será de 10 puntos:

1. Prueba práctica: 4 puntos.

Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

2. Desarrollo de un tema: 4 puntos.

Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.

3. Definición de conceptos geográficos: 2 puntos.

Cada concepto debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas. Cada definición se valorará de 0 a 0,5 puntos.

Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK

2015eko EKAINA

GEOGRAFIA


A AUKERA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2015

GEOGRAFÍA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko adin-piramidearen iruzkina. (4 puntu)



Iturria: **Estatistikako Institutu Nazionala (INE)**

2. Espainiako klima mota nagusien eta eremu klimatiko bakoitzari dagozkion landaretza mota desberdinen sintesia. (4 puntu)
3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
- Modelatu karstikoa edo erliebe karstikoa (0,5 puntu)
 - Biztanleria aktiboa (0,5 puntu)
 - Erromako Ituna (0,5 puntu)
 - Abeltzaintza estentsiboa (0,5 puntu)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK

2015eko EKAINA

GEOGRAFIA

B AUKERA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2015

GEOGRAFÍA

1. Espainiako mapa politikoa (Autonomia-erkidego eta probintzien kokapena). (4 puntu)



2. Industriaren kokalekuak Euskal Autonomia Erkidegoan. (4 puntu)
3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
 - Ekintza-zentroa (antizikloia eta depresioa) (0,5 puntu)
 - Tertziarizazioa (0,5 puntu)
 - Europar Batasuna (0,5 puntu)
 - Migrazio-saldoa (0,5 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

Irizpide espezifikoak

A AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Kontuan hartuko da:

- Piramideak duen forma eta bere iruzkina
- Populazio zaharrean: emakumeen pisu handiagoa beren bizi-itxaropen luzeagoa dela eta. 70-74 urte tarteko sartunean: Gerra Zibilaren ondoriozko belaunaldi hutsak.
- Helduen artean: heldu-gazte (35-54 urte) belaunaldien zabaltasuna pertsona gazteen immigrazioak lagundutako jaiotzaren hazkundera dela eta (*Baby boom* (1956-1965) urteetan eta hurrengoetan jaiotako belaunaldiak dira).
- 1975. urtetik belaunaldien txikiagotzea ugalkortasun eta jaiotzaren jaitiera handia dela eta.
- Piramidearen oinarriko zabaltze txikian nabarmentzen den orain dela gutxiko jaiotzaren berreskuratzea, oso xumea. Aipatutako berreskuratzearen zergatiak.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4

Dauden barietate guztiak bereiztu eta kokatu behar dira. Bakoitzari buruz, kokapen eta izen zuzena ematetik at, bere elementuak, erregimenak eta faktoreak esan beharko dira.

- a) Ozeaniar klima: penintsulako ipar eta ipar-ekialdean. Prezipitazio ugariak eta erregularrak (800mm baino gehiago urtean); anplitude termiko baxua, udaldi moderatuak eta negu leunak; barne alderantz anplitude termikoa gehituz. Hosto erorkorreko oihana, belardiak eta zakardiak.
- b) Mediterraniar klima: Balear irlak eta ia Penintsula osoa hartzen du. Prezipitazio urriak eta irregularrak (300 eta 800mm urtean); udaldi lehorrak. Oihan iraunkorra eta sastraka mota desberdinak. Barietateak: b1) Itsasaldeko Mediterraniarra:



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

mediterraneoko kostak (hego-ekialdea ezik), hegoatlantikoko kostak, Balearrak. Anplitude termiko moderatua; prezipitazio gehiago kostak hegoatlantikoan (negukoak) mediterraneoko kostan baino (udazkenean gehiengoak); b2) Mediterraneo kontinentalak: penintsulako barne aldean, Ebroko erdi-arroa ezik; prezipitazio urriak, zerbait gehiago mendebalde aldean (Extremadura), Gaztelako depresio guneetan gutxiago, ekinozio erako euri-erregimena; anplitude termiko handiagoa; b3) Mediterraneo lehorra, estepa: penintsulako hego-ekialdean eta Ebroko erdi-arroan; 300mm baino gutxiago urtean; estepa-hotza Ebro arroan eta estepa-beroa hego-ekialdean.

- c) Mendiko klima: 1.000 metrotik gora baldintza termiko eta plubiometrikoen aldaketak. Urtean 1.000mm baino gehiagoko prezipitazioak; tenperaturen jaitsiera, negu hotzak. Landaredi maila desberdinak.
- d) Kanariar klima: subtropikalak; d1) itsasondokoak: kostaldeko franja edo tarteak 500m altuera arte; 350mm baino gutxiagoko prezipitazioak urtean; anplitude termiko baxua urtean zehar; d2) "hodeitza", erdi mailako altuera duten franja edo tarteetan, 600-1.500m inguruan; prezipitazioa 500 eta 1000mm tarteetan, gehiago iparraldeko isurialdeetan hegoaldekoetan baino; d3) altuerakoa, prezipitazioa gutxiago; negu hotzak, anplitude termiko handiagoa. Landaredi maila desberdinak.

3. galdera (kontzeptuen definizioak): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioak hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioak:

Modelatu karstikoa/Erliebe karstikoa: haitz sedimentario edo metamorfikoen gainean modelatutako forma multzoak bere osagai mineralen disoluzioaren ondorioz.

Biztanleria aktiboa: Ondasunak eta zerbitzuen ekoizpenerako lan eskua ematen duten edo ekoizpen-prozesuari gehitzeko egoeran eta aukeran dauden pertsona multzoak.

Erromako Ituna: Europako Energia Atomikoaren Erkidegoa (EURATOM) eta Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) sortzeko Belgikak, Herbehereek, Luxemburgok, Frantziak, Alemaniako Errepublika Federalak eta Italiak, 1957an, sinaturiko akordioak.

Abeltzaintza estentsiboa: lurrazaleko abelburu dentsitate baxua izanik errekurtso propioen aprobetxamenduz baliatuz egiten den abere produkzio sistema. Oro har, bertako arrazekin eta ohiko lan-teknikekin ere lotzen da.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Autonomia-Erkidegoen arteko mugatze zuzena eta baita probintzia bakoitzeko lokalizazio zuzena ere balioetsiko dira.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4

Ezaugarri hauek izango dira baloratuko direnak:

Herrialde mailan:

- Lurralde eredu desorekatua bi area desberdinekin: atlantiko isurialdea, lehenagoko industrializazioa; gune kongestionatuagoak; eta mediterraneo isurialdea, oraintsuko industrializazioa, okupazioa ez da hain intentsiboa.
- Metropoli guneetan industriaren garrantzia (Bilbo-Donostia-San Sebastian) eta Vitoria-Gasteizko udalerrian.
- Gipuzkoako industria-kokapen ereduaren eta Bizkaia eta Arabakoaren arteko diferentziak; lehenengoan, lurraldean zehar banatuago, Bizkaian Bilbo metropoli gunean kontzentratuago eta berdin Vitoria-Gasteizen ere.

Lurralde mailan:

- Bizkaia: a) Bilbo metropoliko eskualdean eta Nerbioi ardatzean industria kontzentrazioa (Laudio eta Amurriora arte). b) Ibaizabal ardatz gunea (Durangoaldea) eta Kadagoa (Enkarterriak). c) Ardatz berriak: Txori-herriko korridorea (Zamudioko Teknologi-parkea); Plentzia-Mungia.
- Gipuzkoa: a) Deba arroa (Deba Garaia: Arrasate-Mondragón, Aretxabaleta, Oñati, Bergara; Deba Behea (Eibar zonaldeko gunea eta Bizkaia aldera zabaltzea (Ermua, Mallabia) eta Elgoibar eta Soraluze-Plaentxi aldera); Deba Garaiko kooperatibismoa: gune berriztatzailea; b) Urola arroa: Zumarraga-Legazpi; Azkoitia-Azpeitia; Zumaia; c) Oria arroa: Beasain; Tolosa. d) Donostia eskualdea; Miramongo Teknologi-parkea (San Sebastian).
- Araba: a) Arabako Lautada: Vitoria-Gasteiz gune garrantzizkoa (Miñanoko teknologi-parkea); bigarren mailako guneak Agurain, Asparrena, Okako Iruña. b) Nerbioi Garaia (Laudi, Amurrio) bizkai aldeko industrializazioari lotuta. c) Beste guneak: Legutiano, Oion.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Ekintza-gune (antizikloi eta depresio –burraskak): Presio altuko (antizikloi) eta behe-presioko (depresio) gunea, estatistika-maiztasunean leku jakin batean kokatu egiten da eta bere inguruko aire-masak eta fluxuak bideratzen ditu.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Tertziarizazio: jarduera ekonomikoaren barnean zerbitzu-sektore edo hirugarren sektorearen hazkunde nabarmena dakarren eraldaketa ekonomiko eta soziala; hirugarren sektorea, hala, lanpostu gehien sortzen dituen eta BPGari (barne-produktu gordinari) gehien ematen dion sektorea izatera pasatzen da.

Europar Batasuna: Europako Ekonomia Erkidegoaren oinordekoa den 1993an ezarritako komunitate ekonomiko eta politikoa. 28 estatu europarez integratuta dago. Bere organo erabakitzaile nagusiak Parlamentua, EBaren Ministro-kontseilua eta Komisioa dira.

Migrazio-saldoa: Leku jakin bateko immigrazio eta emigrazioaren arteko balantzea.

2015